

## Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea

### Rubén Goñi Urroz

Iruñean jaio zen 1982an eta Etxeberrin bizi da (Arakil). Ezkondua dago, eta seme bat eta alaba bat ditu.

Euskal Herriko Unibertsitateko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziaduna da (2005), eta 2006an Irakaskuntzarako Gaitasunaren Agiria eskuratu zuen, EHUkoa ere. 2008an, kirol entitateen kudeaketako aditu ikastaroa egin zuen Mondragon Unibertsitatean, eta EHUko Kirol Kudeaketako masterra 2011n.

Aurreneko lana ATHLON S. Coop. kirol eta osasun zerbitzuen enpresan bete zuen, kirol teknikari gisa; kirol teknikaria izan da Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzietako Fakultatean, kirol entitateen kudeaketa eta zuzendaritza masterraren koordinatzailea, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzietako Fakultateko kultur taldeko koordinatzailea eta Gorputz Hezkuntzako irakaslea Arizmendi Ikastolan. 2007tik 2015era kirol teknikari aritu zen Araitz, Areso, Betelu eta Larraungo Kirol Mankomunitatean, eta, 2013tik, Plazaola Kirolgunea kudeatzen duen enpresa publikoaren gerentea da.

Etxeberriko Kontzejuko alkate udalburua izan da 2003tik 2011ra bitarte, eta Arakilgo Udaleko zinegotzia, bai eta Sakanako Mankomunitateko Kirol Batzordeko lehendakaria ere. 2011tik 2015era Arakilgo Udaleko alkate izan da.

2015eko abuztuan Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaile izendatua.